

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Ukitutako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                   |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|----------------------------|-------------------------------------|
| 8/2013             | R5.2016         | 12-04-2016 | Arabako Foru<br>Aldundia         | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoaren zerga-egoitza |

R5/2016 Ebazpena

8/2013 Espedientea

Gasteiz, 2016ko apirilaren 12a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

## **ERABAKIA**

Gaia: AFA Arabako Foru Aldundiak ZAEA Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren aurrean planteatutako eskumen-gatazka, maiatzaren 26ko 18/1982 Legearen arabera 1. ENPRESAK eta 2. ENPRESAK eraturako Aldi Baterako Enpresa Elkartearen (IZENDAPENA ABEE, IFZ: U----) zerga-egoitza zehaztea xede duena. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 8/2013 espedientea-zenbakiarekin, txostengilea Javier Muguruza Arrese jauna dela.

## **I. AURREKARIAK**

1. Gatazka hau AFak planteatu zuen, Ogasuneko Zuzendariaren 2013ko martxoaren 11ko idazki baten bidez. Idazki hori Arbitraje Batzorde honetan sartu zen hilaren 12an.

Idazki horretatik eta idazkiarekin batera doazen agirietatik, laburbilduta azaltzen diren aurrekari hauek eratortzen dira:

- 1) 1. ENPRESA eta 2. ENPRESA sozietateek, 2009ko apirilaren 7ko eskrituraren bidez, Aldi Baterako Enpresa Elkarte bat eratu zuten, maiatzaren 26ko 18/1982 Legearen babespean. Lehenengo sozietateak

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Ukitutako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                   |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|----------------------------|-------------------------------------|
| 8/2013             | R5.2016         | 12-04-2016 | Arabako Foru<br>Aldundia         | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoaren zerga-egoitza |

% 95ekin hartzen zuen parte, eta bigarrenak % 5ekin. Erakundearen sozietate-helbidea Madrilen ezarri zen, 1. HELBIDEA.

- 2) ABEEren helburua, haren estatutuetan ageri denaren arabera, Norte 1 Espetxerako (1. UDALERRIA, Araba) eraikuntza eta instalazioen obrak egitea zen. Obra horiek Espetxe Azpiegitura eta Ekipamenduetarako Estatuko Elkarteak esleitu zituen.
  - 3) ABEE eratzeko eskrituran kudeaketa-batzorde bat izendatu zen. Batzorde hori 1. ENPRESAko hiru ordezkari, 2. ENPRESAko ordezkari batek eta batzorderako kudeatzaile bakarrak osatu zuten. Kargu horretarako 1. ENPRESA izendatu zen, eta kudeaketako zeregin horietarako enpresa hark helbidea Madrilen zuen (1. HELBIDEA). Enpresa horri ahalmena eman zitzaion pertsona fisiko bat izendatzeko zeregin horiek betetzeko.
  - 4) 2009ko irailaren 10eko eskrituraren bidez, IZENDAPENA ABEEren sozietate-helbidea Madriletik Gasteizera aldatu zen, eta 2. HELBIDEAn ezarri zen, 3. ENPRESA negozio-zentroan. Eskritura hartan, halaber, kudeatzailetzaren helbidea aldatu zen, eta hori ere Gasteizen ezarri zen, 2. HELBIDEA kalean.
  - 5) 1. ENPRESAren eta 3. ENPRESA negozio-zentroaren artean egindako kontratuan aurreikusten den zerbitzugintza deiak eta korrespondentzia hartzea eta halakoak hartu izanaren berri ABEEri ematea eta ABEEren nominak helbideratzea besterik ez da, eta horietaz aparte ez dago beste zerbitzurik emateko asmorik.
3. ENPRESAk 1. ENPRESAri igorritako fakturretatik ere ez da ondorioztatzen ABEEri bestelako zerbitzurik eman zionik, bazter utzita

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Ukitutako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                   |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|----------------------------|-------------------------------------|
| 8/2013             | R5.2016         | 12-04-2016 | Arabako Foru<br>Aldundia         | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoaren zerga-egoitza |

helbideratzea, telefono-arreta, idazkarien telefono-kontsumoa eta gutunen bidalketa.

- 6) ABEEren kudeatzaile eginkizuna betetzeko izendatutako pertsona fisikoak honako hauek izan dira, ondoz ondo: 1. KUDEATZAILEA jauna, helbidea Bilbon duena, 2009/04/07tik 2009/06/26ra; 2. KUDEATZAILEA jauna, helbidea Iruñean duena –agiri batzuetan agertzen da helbidea Zaragozan duela eta bestetan Madrilen–, 2009/06/26tik 2010/01/29ra; eta 3. KUDEATZAILEA jauna, helbidea Valentzian duena, 2010/01/29tik aurrera.
- 7) ABEEko kudeatzaile izan diren hiru pertsonetatik bat ere ez du deklaratu ez ABEEK ez 1. ENPRESAk Arabako lantoki bati atxikitako langile gisa PFEZaren atxikpenak sartzeko (190 eredu).
- 8) IZENDAPENA ABEEK ez du inoiz ere langile propiorik izan.
- 9) IZENDAPENA ABEE bankuko kontu baten titularra izan da (1. BANKUA). Kontu horretan baimenduta egon diren pertsona fisikoek Valentzian eta Madrilen izan dute bizilekua.
- 10) IZENDAPENA ABEEK jarduera eta guztiko BEZaren aitortpen guztiak Arabako Foru Aldundian aurkeztu ditu 2010eko lehenengo hiruhilekotik aurrera. Sozietateen gaineko zergaren 2009ko, 2010eko eta 2011ko ekitaldietako aitortpenak ere Arabako Foru Aldundian aurkeztu ziren.
- 11) IZENDAPENA ABEEren 2011ko ekitaldiko BEZaren autolikidazioa Arabako Foru Aldundian aurkeztu zen. Autolikidazio horren emaitza 8.020.517,34 euro itzultzea izan zen. Arabako Foru Aldundiak, autolikidazio hori egiaztatzean, ondorioztatu zuen ABEEren zerga-egoitza

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Ukitutako administrazioak</i> |                         | <i>Kontzeptua</i>                   |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|-------------------------------------|
| 8/2013             | R5.2016         | 12-04-2016 | Arabako Foru Aldundia            | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridikoaren zerga-egoitza |

beti lurralde erkidean egon zela, Valentzian, eta espedientea ZAEAr i gorri zion.

12) Arabako Foru Aldundiak, 2012ko abenduaren 5eko ikuskapen-txostenean, honako hau azaldu zuen IZENDAPENA ABEEri BEZa itzultzea ZAEAr zegokiola arrazoitzeko: 2009an, eratu zen urtean, zerga-egoitza lurralde erkidean izan zuen, eta eragiketa-bolumena zazpi milioi eurotik beherakoa izan zen. Horregatik, haren iritziz, eragiketak edozein lekutan egin zituela ere, 2009ko eta 2010eko BEZ ordainarazteko Administrazio eskuduna zerga-egoitzari zegokiona zen, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Ekonomi Itunaren 27. artikularen arabera. 2010ean, IZENDAPENA ABEEren eragiketa-bolumena zazpi milioi eurotik gorakoa izan zenez, Arabako Ikuskaritzaren iritziz, 2011ko BEZa ordainarazteko eskumena ez zen zehaztu behar erakundearen zerga-egoitzaren arabera, baizik eta jarduerak egin zituen lekuaren arabera (Araba). Baina inguruabar horretan, administrazio eskuduna aldatzeak esan nahi zuen aurreko ekitaldietatik konpentsatu gabeko saldoak ezin zirela eskualdatu, Arbitraje Batzordearen doktrinaren arabera (doktrina hori Auzitegi Gorenaren 2010eko ekainaren 10eko epaiak berretsi zuen); arrazoi horregatik, haren irizpidearen arabera, ZAEAk itzuli beharko luke 2010era arte sortutako konpentsatu beharreko BEZa.

2. Arabako Foru Aldundiak gatazka planteatzeko idazkian azaltzen du zein argudioengatik ulertzen duen IZENDAPENA ABEEren zerga-egoitza beti lurralde erkidean egon dela eta uste duen Arbitraje Batzordeak ondorio berbera atera behar duela.

Haren iritziz, IZENDAPENA ABEEK ez du bitarteko material edo pertsonalik negozioen administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza benetan eta modu eraginkorrean egiteko. Ez du Gizarte Segurantzako kotizazio-konturik, eta ez du

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Ukitutako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                   |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|----------------------------|-------------------------------------|
| 8/2013             | R5.2016         | 12-04-2016 | Arabako Foru<br>Aldundia         | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoaren zerga-egoitza |

ibilgeturik. Bere sozietate-helbidea ezarria duen enpresa-gunean (Gasteiz) egiten duen jarduera korrespondentzia eta telefono-deiak jasotzeaz aparte besterik egiten ez duen negozio-zentro baten berezko jarduera da. Haren bankuko kontu bakarrean baimenduta dauden pertsona guztiak lurralde erkideko lantokiei atxikita daude, eta, gainera, lurralde horretan bizi dira. Kontratuak ez ziren sozietate-helbidean egiten.

Kontabilitatea urrutitik sartzeko aukera ematen duen programa informatiko baten bitartez egiten da. 1. ENPRESAk ABEEren kudeatzaile izendatutako pertsona fisikoek ez dute kasu batean ere helbidea Araban izan, eta ez dira egon Arabako lantoki bati atxikita. Eta, azkenik, ABEEko bi bazkideetako batek ere ez du zerga-egoitza Araban.

3. 2015eko ekainaren 19an egindako bilkuran, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen gatazka hau izapidetzeko onartzea, eta Estatuko Administrazioari eta erakunde interesdunari jakinaraztea hori. Hain zuzen ere, jakinarazpen horiek jasota daude.

4. 2015eko uztailaren 24ko idazkiaren bidez (sarrera-erregistroa: uztailaren 29a), ZAEAk alegazioak aurkeztu zituen.

Alegazio horietan azaldu zuenez, IZENDAPENA ABEEren zerga-egoitza Araban dago. Alegazioen oinarri gisa, Valentziako ZAEAREN Ikuskatzailearen aurrean IZENDAPENA ABEEren administrazio-buruak emandako azalpenak azaldu zituen. Azalpen horietan, esan zuen zuzendaritza eta kudeaketa benetan Araban egiten zirela. ABEEri buruzko dokumentazioa fisikoki Arabako 1. UDALERRIAN egon da, obraren bulegoan, obra entregatu arte. Eta kontratazioa nahiz igorritako fakturak egin eta kudeatzeko lanak obraren bulegoan bertan egin dira.

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |                   | <i>Ukitutako administrazioak</i> |                                    | <i>Kontzeptua</i>                          |
|--------------------|-----------------|-------------------|----------------------------------|------------------------------------|--|
| <i>8/2013</i>      | <i>R5.2016</i>  | <i>12-04-2016</i> | <i>Arabako Foru<br/>Aldundia</i> | <i>Estatuko<br/>Administrazioa</i> | <i>Pertsona juridikoaren zerga-egoitza</i> |

Euskal Autonomia Erkidegoko ZAEAREN Ikuskatzailetzaren txosten bat ere aipatzen du, 2013ko martxoaren 11koa. Txosten horretan azaltzen denez, IZENDAPENA ABEEren kudeaketa-batzordeak 2009 eta 2011 bitartean hamabi bilera egin zituen, guztiak ere 1. UDALERRIAN (Araba). Erakundeko ABEEren sozietate-egoitzan, Gasteizen, bisita egin zen. Orduan, erakundeko ahaldun batek lehenago administrazio-buruak emandako azalpen berberak eman zituen; hau da, kudeaketa eta kontabilitatea obraren bulegoan egiten zirela; eta zera argitu zuen: negozio-zentroaren kontratazioa erosotasun-arrazoiengatik egin zen, obra urrutiko leku batean zegoelako.

Laburbilduz, ZAEAK dioenez, ABEEren zerga-egoitza beti Araban egon da; hasieran obraren kokalekuan, 1. UDALERRIAN, eta geroago negozio-zentroaren sozietate-helbidean, 2. HELBIDEA kalean.

5. Espedientea amaitu zen eta ZAEARI, AFARI eta erakunde interesdunari jakinarazi zitzaion; horren ostean, 2015eko azaroaren 19an AFAK idatzizko alegazioak aurkeztu zituen (sarrera-erregistroa hurrengo egunekoa da), eta alegazioak aurkezteko idazkian azaldutakoak berretsi zituen. IZENDAPENA ABEEK 2015eko azaroaren 6an idatzizko alegazioak aurkeztu zituen (Arbitraje Batzordearen sarrera-erregistroa hurrengo egunekoa da). Idazki horretan hau besterik ez zuen azaldu: bere eragiketa guztiak Araban baino ez zituen egin, eta bolumena zazpi milioi eurotik gorakoa zenez, bere iritziz, Ekonomi Itunaren arabera, BEZAREN ordainketa Arabako lurraldeari dagokio, ez besteri.

6.- Prozedura hori Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen araudia onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuan xedatuta dagoenaren arabera izapidetu da.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Ukitutako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                   |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|----------------------------|-------------------------------------|
| 8/2013             | R5.2016         | 12-04-2016 | Arabako Foru<br>Aldundia         | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoaren zerga-egoitza |

1. Gatazka honetan, IZENDAPENA ABEEren zerga-egoitza non dagoen zehaztea da gaiaren funtsa. Gatazka honen xedea ez da BEZa itzultzea nori dagokion, nahiz eta hori zerga ordaindu behar duen erakundearen zerga-egoitzaren baitan egon daitekeen. Arbitraje Batzordeak ez du zertan ezer esan BEZaren itzulketari buruz: soil-soilik zerga-egoitzaz aritu behar da.

Gatazkaren xede den gaia ebazteko, Ekonomi Itunaren 43.Lau, b) artikulua aplikatu behar da. Artikulu horrek xedatzen duenez:

“Ekonomia Itun honen eraginetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan zerga egoitza dutela ulertuko da hurrengo kasuan:

(...)

b) Pertsona juridikoak eta Sozietateen gaineko Zergaren menpean dauden gainerako erakundeak, Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badute sozietate-egoitza eta betiere sozietate-egoitza horretan badin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, edo, bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada (...).”

2.- Arbitraje Batzorde honek askotan errepikatu duen doktrina, hain zuzen ere Auzitegi Gorenak berretsi duena, honako hau da: “persona juridikoen zerga-egoitza zehazteko garaian, berdin dio non dagoen haien sozietatearen helbidea. Administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza gune nagusiaren kokapena da hori erabakitzen duen irizpidea. Dena dela, egoitza zehaztea ez da eginkizun erraza; izan ere, alde batetik, aginduzko erregelek sekulako garrantzia dute zerga-egoitza zehazteko, zerga batzuk eta besteak aplikatze aldera; beste alde batetik, ordea, Ekonomi Itunean negozioen benetako administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza zentralizaturik dauden

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Ukitutako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                   |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|----------------------------|-------------------------------------|
| 8/2013             | R5.2016         | 12-04-2016 | Arabako Foru<br>Aldundia         | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoaren zerga-egoitza |

lekua identifikatzeko ez da arau bat ere zehazten. Horrenbestez, “zerga-egoitzaren kokapena ziurtatzeko, (...) leku jakin batean aipatutako ezaugarriak daudela frogatu behar da”. Hala diote, besteak beste, ebazpen hauek: R4/2009, 2009ko martxoaren 6koa (5/2008 espedientea) -Auzitegi Gorenaren 2010eko otsailaren 8ko epaiak 191/2009 errekurtsioan berretsi zuena-; R2/2013, 2013ko urtarrilaren 25ekoa (02/2010 espedientea); R3/2013, urtarrilaren 25ekoa (03/2010 espedientea); R4/2013, 2013ko urtarrilaren 25ekoa (04/2010 espedientea); R5/2013, 2013ko otsailaren 22koa (05/2010 espedientea); R6/2013, 2013ko otsailaren 22koa (06/2010 espedientea); R8/2015, 2015eko ekainaren 19koa (33/2014 espedientea); eta R12/2015, 2015eko ekainaren 19koa (30/2014 espedientea).

Aurreko ebazpen batzuetan behin eta berriz esan denez, “administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza” nozioa kontzeptu juridiko zehaztugabea da, eta, nozio hori zehazteko, kasuaren inguruabar guztiak hartu behar dira kontuan (besteak beste, ebazpen hauek: R3/2012, 2012ko martxoaren 30ekoa, 31/2008 espedientea; R7/2012, 2012ko maiatzaren 11koa, 36/2008 espedientea; R18/2012, 2012ko abenduaren 27koa, 19/2010 espedientea; R14/2013, 2013ko uztailaren 24koa, 31/2010 espedientea –Auzitegi Gorenaren 2015eko ekainaren 18ko epaiak 417/2013 errekurtsioan berretsi zuen–; R4/2014, 2014ko urriaren 13koa, 2/2011 espedientea; R7/2014, 2014ko abenduaren 19koa, 32/2010 espedientea; R8/2015, 2015eko ekainaren 19koa, 33/2014 espedientea; eta R12/2015, 2015eko ekainaren 19koa, 30/2014 espedientea). Auzitegi Gorenak azaldu duenez, “administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza gune nagusiaren kokapena” esamoldea adierazpen konplexua da (...) eta kasurik kasu zehaztu behar da; halakoak txertatzean, kasu bakoitzaren inguruabar zehatz objektiboak kontuan hartu behar dira, baina horrez gain, eta funtsean, kontuan hartu behar da zer-nolako sozietateaz ari garen zehazki eta, bereziki, zein jarduera egiten duen” (2013ko urriaren 17ko epaia, 538/2012 errekurtsioa, Laugarren Oinarria; 2014ko otsailaren 21eko



| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Ukitutako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                   |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|----------------------------|-------------------------------------|
| 8/2013             | R5.2016         | 12-04-2016 | Arabako Foru<br>Aldundia         | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoaren zerga-egoitza |

epaia, 505/2012 errekurtsua, Laugarren Oinarria; eta 2015eko ekainaren 18ko epaia, 417/2013 eta 471/2013 errekurtsuak, Bosgarren Oinarria).

Bada, AFAk eta ZAEAk IZENDAPENA ABEEren kudeaketa eta zuzendaritza benetan zein lekutan egiten den erabakitzeari buruz duten desadostasuna ebazteko (Ekonomi Itunaren 43.Sei artikulua eta Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 3.c) artikulua), espedientean dauden datuak eta gainerako frogak elementuak aztertu beharko dira, eta kasuaren inguruabar guztiak kontuan hartu eta batera baloratu beharko dira; gainera, kontuan hartu beharko da erakundeak egiten duen jardueraren funtsezko egitatea eta ABEE izaera.

3. IZENDAPENA ABEE, halako erakundeetan berezkoa den moduan, obra jakin bat egiteko helburu zehatzarekin eratu zen, hau da, Arabako 1. UDALERRIAN espetxe berria eraikitzeako kontratuaren esleipenaren ondoriozko obra egiteko. Kontratu hori estatuko erakunde batek lizitatu zuen.

Inguruabar horrek ezin hobeto azaltzen du ABEEk zergatik mantendu behar zuen administrazio-egitura bat 1. UDALERRIAN, obraren ondo-ondoan, ez soilik praktikotasun kontu batengatik, argi dagoenez, baizik eta kontratuak hala eskatuta.

ZAEAk dioenez, instalazio horietan kontabilitatea eramaten zen, hornitzaileekiko harremana zentralizatzen zen, fakturak jaso eta igortzen ziren, eta zergen aitorpenak aurkezten ziren. ZAEAk dioenez, ABEEk zeregin horiek betetzeko langile egokiak zituen, behintzat obra amaitu zen arte.

Azalpen horien frogak euskarri bakarra, hala ere, erakundeko ahaldun baten azalpen hutsak dira. Ahaldun batek halakoak esan zizkien ZAEAREN langile batzuei, azken horiek erakundearen zerga-egoitza deklaratu bisita egin

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Ukitutako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                   |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|----------------------------|-------------------------------------|
| 8/2013             | R5.2016         | 12-04-2016 | Arabako Foru<br>Aldundia         | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoaren zerga-egoitza |

zutenean. Bada, helbide hori ez zegoen 1. UDALERRIAN, baizik eta Arabako negozio-zentro batean. Beste alde batetik daude ABEEren administrazio-buruak emandako azalpenak. Halakoak Valentzian ZAEako ikuskatzaile batzuen aurrean agertu zenean eman zituen.

IZENDAPENA ABEEren zerga-egoitza Araban dagoela esateko, ZAEAk honako hau ere hartzen du oinarri: ABEEren kudeatzaile gisa denborarik luzeenean izendatuta egon zen pertsonak, 3. KUDEATZAILEA jaunak, eta ABEEren administrazio-buruak, 1. ADMINISTRAZIO-BURUA jaunak, obrak egin ziren bitartean euren destinoa eta eginkizunak 1. UDALERRIAN izan zituzten; horrenbestez, erakundearen zuzendaritza-lana ere bertan egin zen.

Hala ere, baieztapen hori azalpen horietan oinarritzen da, besterik gabe, eta ez dago inolako froga-elementurik, pertsona horiek lana Araban egin zutela egiaztatu ahal izateko. Pertsona horiek ABEEren eta 1. ENPRESA sozietatearen enplegatuak ziren. Bada, ABEEK eta 1. ENPRESA sozietateak Arabako Foru Aldundian ez zuten aurkeztu PFEZaren atxikipenen 190 ereduko aitortpenik, Ekonomi Itunaren 7. artikularen arabera zerbitzuak Araban ematen dituzten langile gisa hala egin behar zuten arren.

Egiaztatuta dago ABEEren kudeaketa-batzordeak 2009/09/10etik 2012/03/31ra bitartean egin zituen hamabi bilerak 1. UDALERRIAN egin zirela, akta horietatik ondorioztatu ahal denez. Kudeaketa-batzordea kide anitzeko organoa zen, ABEEren estatutuetan aurreikusitakoa. Organo hori lau ordezkari eratu zuten, hiruk 1. ENPRESA ordezkaturik, eta batek 2. ENPRESA ordezkaturik. Bestelako administrazio-azpiegiturarik ezean, ez dirudi inguruabar horrek euskarri nahikoa ematen duenik erakundea benetan kudeatu eta zuzentzeko.

4. IZENDAPENA ABEEK ez du inoiz ere langile propiorik izan. IZENDAPENA ABEEK bere sozietate-egoitza Gasteizko negozio-zentro batean ezarri zuen.

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Ukitutako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                   |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|----------------------------|-------------------------------------|
| 8/2013             | R5.2016         | 12-04-2016 | Arabako Foru<br>Aldundia         | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoaren zerga-egoitza |

Negozio-zentro horretan, sinatutako kontratuarekin eta igorri zitzaizkion fakturekin egiaztatuta geratu denez, emandako zerbitzu bakarrak korrespondentzia jaso eta bidaltzea eta telefono-deiak jaso eta desbideratzea izan ziren.

IZENDAPENA ABEEren izenean irekitako banku-kontu bakarrean baimendutako hamabost pertsona fisikoetatik, helbidea batek ere ez du izan Araban.

IZENDAPENA ABEEren bi bazkideek zerga-egoitza Arabatik kanpo dute, eta lurralde horretan ordezkaritza dutenik ere ez dute egiaztatu. 1. ENPRESAK, ABEEren partaide nagusiak (% 95 dauka), ABEE bere Valentziako ordezkartzari atxikita eduki du.

Egia da 1. UDALERRIAN ABEEK han bertan egiten ari zen espetxea eraikitzeko lanen zuzendaritza eta kontrol lanak egiten zituela. Hala ere, jarduera horiei dagokienez, honako hau gogora ekarri behar da: R1/2008 eta R1/2009 ebazpenak –horiek Auzitegi Gorenaren 2010eko otsailaren 4ko eta ekainaren 16ko epaiek berretsi zituzten, hurrenez hurren– parke eolikoaren titular ziren sozietateei buruzko bi espedientetan eman genituen; ebazpen horietan, bada, azaldu genuen gatazken hizpide ziren sozietateen zerga-egoitza ez zegoela sozietateek deklaraturako helbidean, hau da, euren titulartasunpeko parte eolikoa zein lurraldetan zegoen eta bertan, funtsezko arrazoi batengatik: helbide hartan funtsean jarduera teknikoak egiten ziren; parkearen proiektua eta eraikuntza, alegia. Eta, aitzitik, zantzuak kontuan hartuta ematen zuenean enpresaren administrazio-kudeaketaren eta negozioen zuzendaritzaren jarduerak jatorrizko sozietatearen lurraldean egiten zirela, hain zuzen ere lurralde honetan egiten ziren ustez zuzendaritza eta kudeaketa, eta, beraz, bertan zegoen gatazken xede ziren erakundeen zerga-egoitza ere.

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Ukitutako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                  |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|----------------------------|------------------------------------|
| 8/2013             | R5.2016         | 12-04-2016 | Arabako Foru<br>Aldundia         | Estatuko<br>Administrazioa | Persona juridikoaren zerga-egoitza |

Auzitegi Gorenak, Arbitraje Batzorde honen martxoaren 6ko R4/2009 ebazpena berresteko 2010eko otsailaren 8an emandako epaian, zera onartu zuen: elementu pertsonal eta materialak edozein lekutan daudela ere, eta erakundeak bere jarduerak edozein lekutan egiten dituela ere, "badago leku bat, zeinetan benetan hartzen diren antolakuntzazko erabakiak, hain zuzen ere elementu batzuei eta besteei nahiz erabakien beraien bilakaerari eragiten dieten erabakiak. Laburbilduz, esan dezakegu hori gertatzeko bi baldintza bete behar direla: a) Edozein unetan erakundeko edozein unitate edo zedulari eragin ahal dion erabaki bat hartu ahal den lekua izatea, non erabaki horrek ondorioz erakundearen jarduera bideratu, baldintzatu eta zehaztu ahal duen. b) Leku horretan era berean giza baliabideen eta baliabide materialen antolakuntza egonkor bat edukitzea erabaki-ahalmen hori baliatzeko".

Baldintza horiek, IZENDAPENA ABEEren kasuan, 1. ENPRESAREN Valentziako ordezkartzan betetzen ziren, eta ez Araban; azken leku horretan, bazkideek eta ABEEK ezin izan dute egiaztatu gutxieneko azpiegitura bat zutenik, ez materialen aldetik, ez langileen aldetik.

5.- Aurretik azaldu direnen arabera, kontuan hartuta IZENDAPENA ABEEK egiten duen enpresa-jarduera eta gatazka honen eta Arbitraje Batzorde honek parke eoliko batzuei buruz ebatzitako gatazken artean dauden antzekotasunak –gatazka horiek Auzitegi Gorenak berretsi zituen–, ondorioztatu behar dugu IZENDAPENA ABEEren administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza 1. ENPRESAREN Valentziako ordezkartzan egiten zirela. 1. ENPRESA hori % 95en titularra zen, baita estatutuetako kudeatzaile ere.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

### ERABAKI DU:

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Ukitutako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                   |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|----------------------------|-------------------------------------|
| 8/2013             | R5.2016         | 12-04-2016 | Arabako Foru<br>Aldundia         | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoaren zerga-egoitza |

1.- Maiatzaren 26ko 18/1982 Legearen arabera 1. ENPRESAK eta 2. ENPRESAK eratutako Aldi Baterako Enpresa Elkartearen (IZENDAPENA ABEE, IFZ: U----) zerga-egoitza Valentzian dagoela deklaratzeari.

2.- Jarduketak amaitu eta artxibatzea.

3.- Erabaki hau jakinaraztea Arabako Foru Aldundiari, Zerga Administrazioari, Zerga Administrazioari eta maiatzaren 26ko 18/1982 Legearen arabera 1. ENPRESAK eta 2. ENPRESAK eratutako Aldi Baterako Enpresa Elkarteari (IZENDAPENA ABEE).